



Lezoko Unibertsitateko Udala

Atez ateko hondakinen gaikako bilketa sistemarekin hasi aurretiko azken faseari ekin zaio azken asteetan. Etxe konposta bultzatzeko kanpainaren baitan, ia 100 familiak hartu dute parte lehen ikastaroetan, eta udal langileak hasi dira kalean zintzilikatzeoak jartzen eta ekarpen eta larrialdi guneko lanekin.

Iraunkortasun eta ardura irizpideak lehenetsiz, Gobernu Batzordeak 800 herritarrekin batera diseinatutako hondakinen atez ateko gaikako bilketa sistemarekin hasteko azken fasean, tamalez, berriz ere, hainbat boikot ekintza gertatu dira herrian. Udal brigadako langile eta zinegotziek mehatxuak eta irainak jasan dituzte zintzilikatzeoak jartzen ari ziren bitartean, eta egindako lana ere zapuztu nahi izan da zenbait zintzilikatzeo kenduz.

Gertakari horien harira, Lezoko Udal Gobernuak honakoa adierazi nahi du:

- Lezoko Udaleko Gobernu Batzordeak ez du inolaz ere onartuko, ezen Udaleko ordezkari edota brigadako udal langileek, bere jarduna betetzen ari diren bitartean, mehatxu eta irainak jasan behar izatea. **Krispazioa hauspotzen duten ekintza eta eraso pertsonal oro gaitzesten dugu.**
- Ulergaitza da Lezo Garbia plataformako kideek egindako azken batzarrean, intsumisiorako deia egitea. Badirudi, hondakinen eztabaida desbideratu eta izaera politiko eta alderdikoia emanez, gaia interes elektoraletarako erabiltzea dela batzuen asmoa. Ez da zilegi ahal dena baino gutxiago birziklatzea erosotasunaren izenean. **Birziklapenaren aurrean ezin daiteke intsumiso izan.**



LEZO ongizate iraunkorra



Lezoko Unibertsitateko Udala

- **Gobernu Batzordeak, benetako eztabaidagai dena desbideratu gabe, ongizate iraunkorraren bidean tinko jarraituko du:** arduraz, Lezon 2013an %80 inguruko gaikako bilketa emaitzak lortzeko lanean egingo du aurrera. Emaidza horiek lortzeko bidean, gertu dago Lezoko herria.

Lezon, 2013ko apirilak 4



LEZO ongizate iraunkorra